

AIARALDEA *hemen*

Amurrioko Udalak dirulaguntza kendu dio eskualdeko euskarazko komunikabide bakarrari

Laudio, Urduña, Aiara, Okondo, Artziniega, Orozko, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldoko Udalek, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak babestu, sustatu eta finantzatzen duten AIARALDEA KOMUNIKABIDEARI 6.000 euroko dirulaguntza kendu dio Amurrioko Udalak. Gertaera oso larria eta onartezina zaigu, eta egoera bideratzeko eskatzen diogu tokiko erakundeari.

Aiaraldea Komunikabideak eta Amurrioko Udalak 2012. urtetik izenpetua eta indarrean zuten euskara sustatzeko hitzarmena alde bakarrez eten du Udalak, inolako jakinarazpenik eman gabe komunikabideari eta hitzarmenaren helburuari bizkar emanez.

Udalak ez dio erantzun egoeraren larritasuna aztertzeke eginiko bilera eskaerari. Apirilaren 15etik dago Aiaraldea Komunikabidea bilera horren zain.

Euskararen biziberritzerako Eusko Jaurlaritzaren zein Arabako Foru Aldundiaren plan estrategikoetan euskarazko komunikabideen garrantzi estrategikoa azpimarratzen bada ere, Amurrioko Udalak eten egin du Aiaraldea Komunikabideak bere lana egiten jarraitu ahal izateko dirulaguntza.

karaz bizi nahi dugu!
ledabideenAlde

14 urte

hauetan Amurriori buruzko

3.787

albiste eta elkarrizketa

argitaratu ditu Aiaraldea Komunikabideak.



5.458

agenda deialdi iragarri eta lau
haizetara hedatu ditugu.



Bideoan jaso ditugu

625

ekitaldi, gertaera eta aldarrikapen.




14 urteotan

1.698

argazki-bilduma

plazaratu ditugu Amurrioko
gertakari eta ekitaldiekin.



50.000

argazkitik gora

publikatu eta lizentzia librean
zabaldutugu.



10 urteotan

354.800

egunkari doan banatu ditugu Amurrioko kale eta ikastetxeetan.

9 milioi

orrialde edukiz beteak.



82.786,60€

inbertitu ditugu soilik Amurriorako egunkariak inprimatzen; aintzat hartu gabe erredaktatzen, maketatzen zein banatzen eman ditugun lan-orduak.

AMURRIOKO
EHUNKA
ELKARTE ETA
ERAGILEREN
LANAREN BERRI
EMAN DUGU.

HAMAIKA
GATAZKA,
ALDARRIKAPEN
ETA
EKINBIDEREN
BOZGORAILU
IZAN GARA.

UDALERRIKO
KULTUR-
SORTZAILEEN
LANEN ETA
IBILBIDEAREN
BERRI EMAN
DUGU

Salatzen dugu

Eskualdeko euskarazko komunikabide bakarra itotzeko saiakera hau, azken urteotan Amurrioko Udalak euskararen biziberritzearen aurka hartu dituen erabakien azken mugarria da.

· 2023ko maiatzean, udal-hauteskundeetan atarian, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak **ordezkari politikoei euskararekiko konpromisoak hartzeko** eginiko proposamenaren aurrean, Kontseiluarekin biltzeari muzin egin eta konpromisoak sinatzeari uko egin zion.

· 2023ko uztailearen 27an **euskararen teknikari lanpostua udal langileen zerrendatik ezabatzea** erabaki zuen Udalak. Presio sozialari esker, Udalak konpromisoa hartu zuen langile baten lanaldi osoa euskara arlora zuzentzeko.

· 2024ko urtarrilaren 5ean **Amurrioko kiroldegiaren kudeaketarako lizitazio publikoan** bertako langileen **euskara profil derrigortasuna kendu** zuen, Udalaren Euskara Planean zehaztuta dagoen arren mota horretako lanpostuetan hizkuntza irizpideak jarri behar direla.

· Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin duen hitzarmena izoztuta dago 2016tik, eta eskualdeko udal bakarra da igotzea onartu ez duena.

· 2024ko urtarrilean, urteko aurrekontuak onartzearekin batera, **Aiaraldea Komunikabideari dirulaguntza eten** egin zion, egitasmoa itotzeko helburuarekin.

· 2024ko otsailaren 16an Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak euskararen presentzia zein absentsia ikusgarri egiteko **“Euskararen Semaforoa” tresna berria plazaratu zuen**. Amurrioko Udalak ez du bat egin dinamika berri honekin.

· 2024ko apirilean, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren ekinbidez **“Gora Aiaraldeko jai euskaldunak” dinamika** aurkeztu zen, Audio, Urduña, Orozko, Artziniega, Aiara eta Arrankudiaga-Zolloko Udalekin batera. Honetan ere Amurrioko Udalak kanpainarekin **bat ez egitea** erabaki zuen ateak itxiz benetan euskaldunak izango diren jaiak sustatzei.

Dei egiten dugu

Amurrioko elkarte, enpresa, ostalari, merkatari zein norbanakoei dei egiten diegu udalerrriaren euskalduntze prozesuan atzerapauso gehiagorik ez onartzeko.

Ezinbestekoa da euskararen aurkako erasoak eta oztopoak geldituko dituen osasun-hesia osatzea.

Aiaraldea Komunikabidearen dirulaguntza berrezarri eta beste Udalen mailara igotzeko atxikimendu dinamikarekin bat egiteko eskatzen diogu Amurrioko ehun sozial guztiari.

Aldarrikatzen dugu

1.

Komunikabidearen eta Udalaren arteko bilera lehenbailehen egin dadila.

2.

Udalak Aiaraldea Komunikabideari dagokion dirulaguntza publikoa berrezarri diezaiola berehala.

3.

Euskararen aurkako eraso guztiak eten ditzala Amurrioko Udalak, eta herritarren ekinbidez jaio eta garatzen diren euskara biziberritzeko dinamika eta proiektuak sustengatu ditzala guztionak diren baliabide publikoak erabiliz.

4.

Amurrioko Udalak euskararen biziberritzean oztopo izateari utzi eta, instituzio publikoei dagokien bezala, biziberritze prozesuaren zerbitzura jarri ditzala guztionak diren baliabide publikoak.

Egoera ekonomiko zaila

14 urte dira irabazi asmorik gabeko Aiaraldea Komunikabidea hasi zela gure eskualdearen berri euskaraz ematen eta ahal beste euskarrietan zabaltzen.

Herritarren ekinbidetik jaiotako proiektuak eskualdeko udal eta alderdi politiko guztien babesa jaso zuen 2012. urtean, adostasun politiko handiz Saraubeko Mahaian sinatutako hitzarmenaren bidez, hain zuzen ere.

Gaur gaurkoz, hauek dira Aiaraldea Komunikabidea finantzatzen duten erakundeak:

Eusko Jaularitza
Arabako Foru Aldundia
Laudioko Udala
Aiarako Udala
Okondoko Udala
Artziniegako Udala
Urduñako Udala
Orozko Udala
Arrankudiaga-Zolloko Udala
Arakaldoko Udala

Ordutikhona, Aiaraldea Komunikabidea sortu eta dinamizatzen duen irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko Aiaraldea Kooperatiba Elkartek urtetik urtera komunikabidearen galera ekonomikoak sustengatu behar izan ditu bere diru ekarpen propioaren bidez (bazkideen kuota desinteresatuekin, zerbitzuetatik lortutako etekinekin, ekarpen boluntarioen bidez...).

Azken 5 urteotan Aiaraldea Kooperatiba Elkartek 486.329,97 euroko ekarpena egin behar izan du Komunikabidearen jasangarritasun ekonomikoa bermatzeko.

Egoera ekonomiko zail honen testuinguruan, Amurrioko Udalak proiektuari egiten zion ekarpen eskasa etetea erabaki du, proiektuaren bideragarritasuna are gehiago kolokan jarritz.

Amurrion euskara

#EuskarazkoH